



Martin Ferran Azalaren egilea



Ula Iruretagoiena *

Martin Ferranek arkitektura-ikasketek eskaintzen duten hezurdura badu ere, ikerketa artistikoak garatu ditu eta artearen diziplinan barna lanean izan da aspaldi (administrazioak legitimatzen dituen arte-kanaletan alegia), eta nolabait bere lekua bertan aurkitu duela baieztatu dezakegu. *Aldiri* aldizkariaren lagun ezaguna dugu, gurekin izan baitzen hastapeneko zenbakian. Oraingoan, artista baten ikuspegitik arkitekto gabeako arkitekturaren inguruko gogoetak partekatu ditugu.

ZER BERRI proiektua, *Projecte PÚBLIC2010* bekarekin garatu duzu, zeinetan komunikazioa eta bizitza kolektiboaren suspertzea bultzatzen den. Zertan datza?

“Saladestar” lantaldeak komunikazio-dispositibo bat proposatzeko eskatzen digu Bartzelonako Gracia auzoan dagoen Los Llúisos elkarte soziokulturalean. Ekimen pribatutik zerbitzu publikoa eskaintzen duen entitate horrek 150 urteko historia du. Nire proposamenak komunikazio-baldintzetan egiten du indar, testuinguru orekatu bat bilatu beharrean, gatazketatik oinarritzen du komunikazio-beharrak. Bestalde, komunikazio-dispositibo baten eraginkortasuna neurtu beharrean, haren gabeziak azaleratzeko ahalmena interesatzen zait.

Ezaguna zaigu artea lan-prozesu gisa ulertzen dutenen pentsamendua, artelanaren azken emaitzari garrantzirik ematen ez diotenak alegia, edo artelana unearen gertakizunen arabera gertatzen dena. Badu ulerkerak horrek arkitekturara transferentziarik?

Noski. Dena den, ez dut uste azken emaitza garrantzitsua ez denik, begirada kontu bat da, azken emaitza helburu bakar bihurtu beharrean, nolabaiteko ondorio bat dela uste dut. Baldintzatzaile batzuen bitartezko lanak hauen definizio beharra dakar ezinbestean. Arkitektura, amaierako baldintzak imajinatetik dator, espazio honek honelako ezaugarriak (izan behar) ditu. Eta zergatik ez, agian, espazio hau honelako baldintzetatik dator honelako ezaugarriak izatera. Dena den, ez da gauza berria, beti egin izan dela uste dut.

Arteak ikuspegi indibidualista errotua du. Zein da arteak izan dezakeen gizarteratze-funtzioa?

Artearen ikuspegia indibidualista balitz, indibidualismoa litzateke gizarteratuko lukeena. Ez dut uste arteak berak ardurarik duenik, salbu eta artistak berak bere buruari jarritakoak. Artea gizarteratzeko obsesioak eta, adibidez, arte publikoak edota publikoak egindako arteak, nahaste asko ekarri dizkigu. Esaterako, ezintasuna, edota komunikazio-ezintasuna, gaitasunen maila berean ikusten ditut. Orain, zerk eramaten zaitu haratago? Biek definitzen dituzte muga pertsonalak eta beraien arteko proportzioa. Beti dago erakutsi nahi ez dugun alderdi bat, ezkutuan egoteak ez du esan nahi ez dagoenik.

Zein interesa du zuretzat, arkitekto gabeako arkitekturak?

Arkitekto gabeako arkitektura beharretik dator ezinbestean. Ikusgaitasun kontuak ez dira estrategikoak, ondoriozkoak baizik. Arkitektoa ez da desagertzen dagoenean ezkutuan bizi delako, beraz, zein da gaur eguneko arkitekto bitartezko arkitektura? Zein arkitektura proposa dezake arkitekto batek gaur egun? Behararen konfrontazioari arkitektook muzin egin ohi diogula uste dut.

* Ula Iruretagoiena arkitektoa eta EHUko irakaslea da.

